

Sarrera

Szekler-magiar (hungariarra), Rovas idazkeraren aldaera bat, gizadiaren kultura unibertsalaren herentziaren parte da. Magiarrak (hungariarrek) eta hauen ahaideek sortutakoa. Bere sorrera eta garapena eta beste idazkera batzuekiko harremana, oraindik ere ikerkuntzarako iturri dira. Rovaseko idazkera ezagutzen duten ikerlari eta bestelako adituen artean teoria ugari daude bere inguruan. Dena den, gaur egun egiaztatuta dago, IX. mendean magiarrak intentsiboki erabili zutela Rovas idazkera bere hizkuntzaren eremuan eta honek aurreko mendeetako erabilera suposa dezake.

XI. mendetik aurrera, bai Hungarian zein Europako herrialde gehienetan, latinera eta honen alfabetoa erabili zituzten gobernuek eta Eleizak bere komunikatu ofizialak egiteko. Hala ere, Rovas idazkeraren erabilerak gaur arte iraun du magiar hizkuntza erabiltzen den gune batzuetan. Rovas idazkera artzain xumeek zein nobleek eta eleiz gizonak erabili izan zuten; eta garai batean izaera sekretuzko idazkietan erabili zen. Rovasko idazkerak Erdi Aroa eta hurrengo aroak gaintitzeaz gain, denbora guzti horretan etengabeko garapena izan du. Gure garaiko azken hamarkadetan, herri harrera handia izan du, gaurko behar kultural eta informatikoetara egokituz. Gaur egun, Rovas Szekler-Magiar idazkera liburu, egunkari eta WEBguneetan dago. Eta era berean artelan, seinale publiko eta industria diseinuetan ere aurki daiteke. Milaka ikaslek diardute nazio idazkera mota honen ikaskuntzan, irakasle espezializatuen gidaritzapean.

Aintxinako idazkera honen jarraitzaileen kopuruak aparteko igoera izan duenez, ehun mila erabiltzailetik gora, bere erabilerarako arau berriak sortu behar izan dira. Karaktereen erabilera koherentea, idazkera arauen modernizazioa eta erabiltzaileek sortutako arautegi teknikoak eraberritze prozezu honen parte izan dira. Liburu honek atal bat du eraberritze bokazio honi dedikatua: Szekler-Magiar Rovaseko idazleen Komunitatea, Gödöllőn, Hungarian, 2008ko urriko 4an, “Élő Rovás” konferentzian magiar hiztunen idazkera nazionala ordenadoreen garaian sartzeko.

Gaur egun Europan erabilitako idazkera guztien artean, Szekler-Magiar Rovas da UNICODE estandarretik kanpo dagoen bakarra eta horregatik ezin da erabili informazio teknologikoan. Horregatik, Szekler-Magiar Rovaseko idazleen Komunitateak, taldeetan antolaturik, Internet bitartez eta Gábor Hosszú Doktoreak zuzendurik, liburu honetan zehaztu den N3527 arau estandarra aurkeztu du ofizialki. Komunitate honen helburu irmoa da idazkera zahar hau onartua izatea eta europako idazkera arauen arteko parte lehen baino lehen izatea. Horregatik eslkatzen dugu irakurle adeitsuen laguntza.

Liburu honen autoreek uste dute Szekler-Magiar Rovas gure ahaideen opari zoragarri bat dela, hurrengo belaunaldientzako herentzia mistikoa. Horregatik errespetu eta miresmen handiena eskaini behar zaio, beti ere gaurkotzeko behar dituen aldaketak gehituz. Gaur bereziki garrantzitsua da helburu hau, idazkera zahar honek eskaintzen dituen kontzeptu eta ideia ugariengatik, Magyar kultura eta hizkuntzarekin ain lotuta daudenak eta Magyar berpizkunde intelektual desiratuaren alde egin dezaketenak.

© 2008. Dr. Hosszú Gábor - Rumi Tamás - Sípos László: Az élő rovás - Nemzeti írásunk a szabványosítás útján. Minden jog fenntartva. All rights reserved.